

Txotx edo mojon?

■ *Atzo zabaldu zuten Berueten Nafarroako sagardotegien denboraldia*

ZUPO Ekisoain Portland San Antonio eskubaloi taldeko entrenatzaileak errepikatu behar izan zuen errituala. Lau aldiz esan behar izan zuen atzo, Berueteko Txaseneko Bordan «Sagardo berria!» ohiko esaldia. Lau aldiz esan, eta lau aldiz basoa hustu, ikusmina zegoelako Anjel Alvarezen sagardotegian. Argazkilariek nahi zuten eran hartu arte edan behar izan zuen, beraz, Zupok. Ez zirudien kezkatuta. Ondoan zituen Alberto Martin eta Oleg Kisselev eskubaloi jokalaria eta Nagore eta Goñi pilotariak, eta Osasunako Trzeciak, Aitor eta Eduardo, eta Donato Larretxea, eta Migueltxo Saralegi... Beruetek, atzo, Astigarraga ematen zuten.



Adituek diote sagardoa hotza dela hain zuzen janariaren eta hotzaren laguntzaz hartzeko. Sagardotegiek aukeratutako eguna eta tokia ezinago aproposak izan ziren. Ikusmira sekulakoa zen Txaseneko Bordan. Inguruak elurrez estalita zeuden, eta pottokek axolagabe begiratzen zuten aparkaleku txikian bildutako ilustre koadrila.

Aurten Beruetekoari egokitu zaio. Duela hiru urte hasi ziren Nafarroako sagardogileek Gipuzkoa aldean egiten den jaia egiten. Iaz Lekarozko Larraldeak inau-

guratu zuen denboraldia eta aurten Txaseneko Bordak. Sagardoa «dezente samar» atera dela zioen, upelen artean, Anjelek. Asturiarra jaiotzez, Hernanin bizi zen duela zazpi urte Berueteko sagardotegia ireki zuen arte. Aurtengo produkzio guztia (17.000 litro sagardo inguru) bertako sagarrekin eginikoa da. Berueten bertan badira 3.000 bat sagarrondo, eta gainontzekoa Esteribarretik ekarri dute, Setuaindik hain zuzen. Ahoan zaporea ez zen sobera garratz, baina hori gertatzen ari da aurten sagardoarekin, falta zaiola akaso azken txinparta hori.

Sagardo ekologikoa ere dastatzeko prest

Upel ekologikoa ere zabaldu zuen Anjelek, hau da, inolako kimikarik erabili gabe eginiko sagardoa. Jendeak ez zion traza handia hartzen. Sumatu zen, hori bai, sagardotegietara ohitutako ba-

«Sagardo berria!» ohiko esaldia behin baino gehiagotan errepikatu behar izan zuen Zupo Ekisoainek, Portland San Antonio eskubaloi taldeko entrenatzaileak.

MIKEL SAIZ

tzuekin batera nahastuta zeudela poloniarrek, errumaniarrak, eta baita Iruindar batzuk ere, ilaran zeudenek ez zutelako asmatzen garaiz jartzen.

Gero eseri ziren denak, bazkaltzera, eta ingurua ederra eta lasaia baldin bada bakailao tortilla eta txuletak hobeto sartzen direla frogatu ahal izan zuten gehienek. Akaso ikaskizun onena kazetarien mahaian eman zuten, ordea. Nahiz eta etxeko jauna behin eta berriro azaltzen zen, gero eta alaiago, «mojon!» esaten, Imozko bertako batek argitu zuen hori ez baino «txotx!» dela sagardotegiko benetako gerra-oihua. «Mojon!» esaten dela beste okasio batzuetan. Orduan uzten dela ogia bustita mahaiko plateran, eta joan behar dela sagardoa dastatzera, eta edaten ez duenak ezin duela berriro jan.

Aurtengo produkzioa
bertako sagarrekin egin
da. Berueten badira 3.000
bat sagarrondo, eta
gainontzekoa
Esteribarretik ekarri dute

Alberto Barandiaran